



U D A L
HAUTESKUNDEAK

2023

gehigarri berezia



Usurbilgo alkategaiekin solasean

Ekitaldia

Maite duzun Usurbil

**Maiatzak 19
18:30
Dema Plaza**



**EGINGO
DUGU.**

ehbildu

Lau alderdi aurkeztu dira maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara

Maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskunderi begira jakin beharreko zenbait kontu lerroetan. Hasteko, kokatu dezagun geografikoki udalerri hau hitzordu honetan. Hauteskunde-batzorde ezberdinak eratzen dira beti. Usurbil, udal hauteskunderen kasuan Donostia eskualdeko hauteskunde-batzordean dago kokatua, beste hamahiru udalerriekin batera: Aduna, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Orio, Pasaia eta Urnietarekin batera. Donostialdekoan dago, aldiz, foru hauteskundererako, Astigarraga, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietarekin batera.

Lau alderdi aurkeztu dira udal hauteskundeetan

Usurbilek 6.166 biztanle ditu eta orain arte bezala, 13 zinegotzi edo udal ordezkari izatea dagokio udalderriaren. Oraingo deialdira lau alderdi



Udaletxeak eta Gipuzkoako batzar nagusiak hautatuko dira maiatzaren 28an.

aurkeztuko dira; EHBildu, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP.

Zazpi alderdi aurkeztu dira foru hauteskundeetan

Zazpi zerranda hauen artean hautatu ahalko dute usurbildarrek foru hauteskundeetarako: EH Bildu, PP, PSE-EE, EAJ-PNV, Elkarrekin Podemos+Ezker Anitza+Berdeak Equo+Alianza Verde, Aulki Zuriak eta Stop.

Posta bidez bozkatzeko eskaera epea ixtear da

Posta bidez bozkatu nahi duenak, azkar ibili beharko du. Tramiteok egiteko azken egunak ditu:

■ Maiatzaren 18ra arte: posta bidez bozkatzeko eskaera "INEren (Estatistikako Institutu Nazionala) webgunean edo Correosen eskuragarri dagoen inprimaki bat erabiliz. Bi kasuetan, betetako inprimakia Correoseko edozein bulegotan aurkeztu beharko da. Posta-zerbitzuko funtzionarioek nortasuna egiaztatzen duen jatorrizko agiria erakusteko eskatuko diete, eta sinadura bat datorrela egiaztatuko dute".

■ Maiatzaren 21era arte: hala eskatu duten hautesleek posta bidez bozkatzeko dokumentazioa eta ja-



Maiatzaren 18ra arte egin daiteke posta bidez bozkatzeko eskaera.

rraibideak jasoko dituzte.

■ Maiatzaren 24ra arte: hautesleek mahaiari posta bidezko botoa bidaltzeko epea "posta ziurtatu bidez".

Informazio gehiago: euskadi.eus atarian.

Mahaikideak, hautatuak

Mahaietan nori lan egitea egokituko zaion erabakia hartuta dago. Apirilaren 27ko osoko bilkuran eta zozketa bidez, programa informatiko batek ausaz erabaki zituen nortzuk izango diren zereginotan jardungo duten herrikideak.

Kontuan izan, mahai bakoitzaren lehendakari batek eta bi bokalek osatzen dute, eta bakoitzak bina ordezkari izaten ditu. Mahai bakoitzeko, beraz, bederatzi kideek aurkeztu beharko dute maiatzaren 28an goizeko 8:00etan hauteslekuetara.

Hautes-mahaiak

Hiru mahai Udarregi ikastolako erdiko aretoan kokatuko dira, beste bi Kalezarko Haur Eskolan, bat Aginagako Eskolan, beste bat Santuenea auzo elkartearen egoitzan, eta azkena, Zubietako Lanbide Eskolan, Usurbil aldean bizi diren zubietarrentzat (Donostialdean bizi direnek Eskola Txikira jo beharko dute bozkatzera).

72 mahaikide guztira

Honenbestez, mahai bakoitzeko bederatzi kide guztira eta hauek mahai kopuruarekin biderkatuz gero (zortzi guztira), 72 herrikideek agertu beharko dute maiatzaren 28ko bozketa egunean hauteslekuok osatzen. Halere, haietatik 24 baino ez dira arituko egun osoz lanean. Goizeko 8:00etan hasita, hauteslekua osatu eta presatatu beharko dute. 9:00etan ireki beharko dute hauteslekua eta iluntzeko 20:00ak arte herritarren bozketa kudeatu. Eta hortik aurrera, zenbaketa egin.



Agurtzane Solaberrieta Mesa: “90 proiektuz osatutako herri programa egin dugu”

Egitasmoei heldu aurretik, egizu azken legealdiaren balorazioa. Lau urteotako udal kudeaketaren inguruan zer nolako iritzia duzu?

Agurtzane Solaberrieta: Legealdia zaila eta konplexua izan da, batez ere, pandemiaren eraginez. Sekula lehenago bizi gabeko eta biziko genuela imajinatu ere egin ez genuen egoera eragin zuen Covidak, eta hala eta guztiz ere, egoki kudeatu genuela esango nuke, inertzietatik at. Argi izan genuen hasieratik non jarri lehenetasunak, eta batez ere, nola erantzun pandemiari: lehen unetik jarri genuen gure begirada kolektibo eta pertsona zaurgarrietan, eta modu komunitarioan artikulatu genuen hainbat eta hainbat ekimen, elkar zaintza eta elkarlana oinarri, esaterako; bolondres sarea, adinekoei egindako deiak, musukoen banaketa, herriko komertzioei laguntzeko erosketa-bonoak edota Kultur Bira. Baliabideak eta dirua gutxitu arren, gizarte babesaren blindatu genuen, eta tokiko ekonomia eta kultura babesten eta suspertzen saiatu ginen, pandemian egonagatik ere, herri osasuntsua eta bizigarria zerumugan.

Pandemiari erantzun ez ezik, mundu mailako erronkei tokikotik, Usurbildik, heltzeko gai izan gara, eta egitasmu eraldatzaileak, aitzindariak eta komunitarioak jarri ditugu martxan, besteak beste, zaintza ekosistema, 650Usurbil bizi egitasmoa, Emakumeen Etxea, Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa, jatorri aniztasuna eta bizikidetzaren ildoak edota komunitate energetikoa eta Kulturgunea sortzea bultzatu ditugu. Herri/auzoetan bertako komunitatearekin egin dugun lana nabarmendu nahiko nuke. Au-



Agurtzane Solaberrieta Mesa, EHBilduko alkategaia, alkate gisa aritu da azken legealdian.

zoekin komunikazio kanal iraunkorak ireki ditugu, eta baliabide eta ekipamenduz hornitu. Legealdiko planaren betetze-maila izugarria izan da: duela lau urte emandako hitza bete dugu.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira bultzatuko dituzun egitasmo nagusiak?

Usurbil duinagoa, kohesionatuagoa eta bizigarriagoa eraikitzen jarraitzeko 90 proiektuz osatutako herri programa egin dugu, EHBilduren oinarriarekin batera. Usurbilentzat dugun herri proiektu eta eskaintzaren sendotasuna erakusten du horrek.

Lerootan guztiak aipatu ezin ditudanez, bi lehenetasun aipatuko

ditut, herri eta auzo bizigarriagoak izate bidean, ezinbestekoak. Batek, etxebizitza merkatuaren logikatik atera eta bere funtzio soziala garatzeko, etxebizitza-politikaren esparruan urrats aurrerakoiak ematen jarraituko dugu, Espainiako Kongresuan, EHBilduren ekimenez onartu berri den Etxebizitza Legeak ematen dizkigun tresna eta garpenera bide berriak baliatuz. Legealdi honetan hartutako erabakiak ez dira gutxi izan: merkatu libreko alokairua ordaintzen laguntzeko dirulaguntza lerro bat jarri dugu martxan; Txirikorda irekitzeaz da, gazteen emantzipazioa erraztu nahi duen proiektua, eta Usurbilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean babestutako etxebizitzaren kopurua nabarmen igo dugu, izan ere, planean antolatutako etxebizitzaren %57 merkatuz kanpoko etxebizitza babestuak izango dira. Etxebizitzaren gaia herritarren arazo nagusia da, eta datorren legealdian hutsik dauden etxebizitzak merkatutzeko plana osatuko dugu.

Bestetik, mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna bermatzeko, hainbat proiektu ditugu esku artean, hala nola Zubieta eta Santuenea arteko bidegorria, eta Etxealdia eta herrigunea lotuko dituen igogailua, besteak beste. Beste erakundeekin lortutako akordioei esker, epe motzean Usurbilek tren geltoki berria izango du, eta Kalezarrek autobus geltoki berria eta konexio irisgarria, geltokia eta auzoa lotuko dituen igogailua egingo baita. Bi obra horiek jada martxan daude.

Ukrainako inbasioak inflazioaren gorakada ekarri du. Elikagaiak, erregaiak, energia... Prezioek gora egin dute modu nabarmenean. Kezka honen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

“Ezagutzak eta herritarrekiko gertutasunak ezaugarritzen du gure taldea”

Neoliberalismo basatiaren ondorioz, prezioen garestitzeak ez dirudi mugarik duenik, eta bizitzaren pobretzea eta desberdintasun sozialak neurrigabe areagotzen ari dira. Berreziki kezkatzen gaituen gaia da, izan ere, dualizazio sozialak gizarte kohesioa hausten du, eta arrisku hori ere badago gure herrian. Usurbil berdinzalea eta haustura sozialik gabeko herria ortzimugan, ezinbestekoa da pertsona guztiek bizitza duin eta justuago bat garatzeko eskubidea bermatuta izatea, eta horrek babes kolektiborako mekanismoak indartzea eskatzen du, bai udaletik bai herrigintzatik. Modu horretan baino ez dugu komunitate sendo bat eraikiko. Hain justu, horixe da gure helburu nagusietako bat, eta norabide horretan ari gara politika publiko feministak eraikitzen, Usurbil harrera herri izan dadin aniztasunaren kudeaketa demokratikoa garatzen, gizarte babeserako dirulaguntza lerroak zabalitzen edota zerbitzu publikoen unibertsalizatorako eta aukera berdintasunerako zerga-sisteman aldaketak txertatzen, gehiago dutenek gehiago ordainduz, gutxiago dutenek gutxiago ordain dezaten. Erakutsi dugu posible dela udaletatik horri aurre egitea, lehentasunak non jarri da gakoa. Geurea argi dago.

Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Legealdi honetan egindakoa asko da, baina asko dugu egiteke, eta martxan ditugun anbizio handiko proiektu eraldatzaileekin dudak ardurak eta konpromisoak eraman nau berriz ere alkategai izatera, eta, batez ere, Usurbilgo EHBilduk hala eskatu didalako. Etxekoen eta lagu-

nen babesa ere ezinbestekoa izan da aurrera egiteko.

Zurekin batera aurkeztu den lantaldea nola definituko zenuke?

Hitz bakarrean, herrigilea. Ezagutzak eta herritarrekiko gertutasunak ezaugarritzen du gure taldea. Esperientzia eta freskotasuna uztartzen ditu, eta zerrendakide berriak ilusio eta gogo handiz datoz. Oso pozik eta harro nago osatu dugun lantaldearekin.

Labur-labur

Zein izan da ikusi duzun azken telesaila edo pelikula?

Ez naiz telesail zalea, eta zineman ikusi dudak azken pelikula ‘Irati’ izan da. Maiatza bete-betea dut, baina gustatuko litzaidake tarte bat hartzea ‘Las buenas compañías’ eta ‘20.000 especies de abejas’ pelikulak ikusteko. Literatura zalea banaiz, eta atzo bukatu nuen Nerea Ibarzabalen ‘Bar Gloria’ liburua. Gozatu egin dut.

Zein da zure musika talde edo bakarlari gustukoena?

Zea Mays eta ETS, bakarlarien artean Ruper Ordorika eta Anari. Izaro ere gustura entzuten dut.

Nora bueltatuko zinateke oportretan?

Alabekin Saharara itzuliko nintzateke, munduko beste egoera batzuk ezagut ditzaten.

Usurbilgo txoko guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

Arratzain bidean, Olloki eta Txantxon baserrien arteko bidexkan dagoen belaze zoragarri hori. Paraje ederra ikusten da han goitik, ia Usurbil osoa, Andatza eta Oria errioren meandrea.

Udal zerrenda

EH Bildu

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.
2. Jon Mikel Azpiazu Zubeldia.
3. Ainhoa Arrozpide Landa.
4. Xabat Beloki Segurola.
5. Iratxe Begiristain Otegi.
6. Xabier Aranburu Leiva.
7. Jose Maria Lizaso Azconobieta.
8. Oskar Santamaria Picabea.
9. Maialen Iñarra Arregi.
10. Lur Etxeberria Gurrutxaga.
11. Alazne Arruti Bengoetxea.
12. Jose Martin Leoz Leoz.
13. Miren Josune Iparragirre Tolaretxipi.

Ordezkoak:

1. Moraysys Silva Rodriguez.
2. Gema Sueskun Urritza.
3. Amets Aburruza Segurola.



Xabier Otxoa Muñoz: “Usurbildarren seme-alabentzat oparoa den herri bat prest eduki nahi dut”

Egitasmoei heldu aurretik, egizu azken legealdiaren balorazioa. Lau urteotako udal kudeaketaren inguruan zer nolako iritzia duzu?

Xabier Otxoa: Udal kudeaketari buruz esango nuke plangintza falta nabaria izan dela, erabakiak hartzeko unean zalantzazko jarrera sumatu dudala eta horren ondorioz, proiektu ugari oraindik konpondu edo egin gabe daude, ur lastarren proiektua, Ingemarreko zorraren gaia, Txirikordako gaia, eta abar luze bat.

Inbertsioei dagokienez, badakit une gogorrek pasa ditugula, hala nola, pandemia, Ukrainiako inbasioa, prezioen gorakada etab., baina, hala ere, inbertsioen egikaritze-maila oso oso baxua izan da urtez urte eta hori kudeaketa desegoki baten isla da. Onartezina da usurbildarren dirua kutxa batean gordetzea urtez urte “aurrezten gabiltzalakoan” eta baliabide horiek erabili gabe geratzea. Behar ugari daude konpondu eta hobetzeko Usurbilen, daukagun inflazioarekin urtez urte balio dezente galtzen duen poltsa bat edukitzeko bezala. Herritar bezala ezin dezakegu hori onartu.

Aurreikuspen falta bistakoa izan den bezala, anbizio eza ere agerikoa izan da. Erabakiak hartzen diren kasuetan, bakarrik epe motz eta ertainean garatu daitezkeenak izan dira, epe luzea aintzat hartu gabe, estrategia gabe, unean uneko burutazioak garatuz.

Ez dut uste utzikeria kontua denik, baina agian bai konformismo hutsalean erortzearen kontua. Esango nuke udal gobernua oso eroso sentitu dela azken urteetan eta hori inbertsioen kudeaketa eta egikaritze-maila baxuan argi ikusten da. Argi dago inbertsioak ez direla bakarrik obra kontua, baina inbertsio betetze-maila baxua zuzen-zuzenean kudeaketa



Xabier Otxoa Muñoz, EAJ-PNVko alkategaia, udal zinegotzia izan zen aurreko legealdian Aretxabaletan.

eskas baten ondorio dela zalantzarik ez dago.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira bultzatuko dituzun egitasmo nagusiak?

Labur-labur nagusienak zerrendatuko ditut: Aritzetatik Usurbilera sarrera irteera berria bultzatuko dugu eta hori martxan jartzeko tramiteak lehen baino lehen hasiko ditugu. Bitartean, Foru Aldundiarekin elkarlanean N-634 errepideko sarrerak hobetzeko lan egingo dugu. Etxebizitzari dagokionez, Usurbil iparraldean etxebizitza eskaintza handitzeko lursailak bideratzeko prozedurak martxan jarriko ditugu. Aparkalekuen beharren azterketa sakon bat egingo dugu, bistakoa baita aparkaleku gabezia dagoela herrigu-

nean.

Zabor bilketa sistema aldatuko dugu, atez atekoa kendu eta txartel elektronikoa duten edukiontzi bidezko bilketa sistema ezarriz, ekonomikoki jasangarriagoa da, birziklatze tasa antzekoak lortzen dira eta gainera herritarren askatasuna bermatzen da, zaborra nahi dugunean bota ahal izango dugu.

Pertsona nagusientzat zaintza eta zahartze politika aktiboak sustatuko ditugu Foru Aldundiarekin elkarlanean, betiere etxean eta etxeokoen bezala sentitu daitezten.

Eskubaloirako kantxa estali berri bat kirol etxe ondoan, egun kanpoan dagoen kantxa zati bat aprobetxatuz. Gimnasioaren guneari buelta bat emango diogu, berrikuntza integral bat behar baitu. Oria ibaian ur lastarren proiektua bultzatuko dugu Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiarekin elkarlanean.

Industriagune berriak sortu eta daudenak eraberrituko ditugu enpresa teknologikoak erakartzeko. Ekintzailera sustatuko dugu, aholkatu eta horretarako tresnak eman.

Lasarte-Oria Usurbilekin konektatzeko eta bidegorri sarea amaitzeko Foru Aldundiarekin elkarlanean beharrezko tramiteak hasiko ditugu.

Ukrainako inbasioak inflazioaren gorakada ekarri du. Elikagaiak, erregaiak, energia... Prezioek gora egin dute modu nabarmenean. Kezka honen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Orokortasunetik hasita kudeaketa on bat, udaletxeko inbertsioen betetze maila altu batekin, baina betiere plan bat eduki behar da, plangintza gabe zaila baita. Ondoren, gauza konkretuetan zentratuz eta epe motzera begira, hobariak emango ditugu behar gehien dituzten familia eta pertsonen. Bestal-

“Lantalde berria dugu, indarberritua, herria hobetzeko gogoekin”

de gazte zein pertsona helduentzat etxebizitza alokairurako dirulaguntzak emango ditugu. Hortaz gain, epe ertain luzera begira, uste dugu oso garrantzitsua dela finantza prestakuntza ikastaroak ematea, familiei finantzetan ezagutza eta tresnak erakutsiz beraien dirua modu optimoago baten kudeatu ahal izateko. Adibide ugari daude, esaterako, hipotekak sinatzerako orduan tipo aldakorra edo finkoa hartzeko erabakitzea, aurreztutako diruarekin zer egin daitekeen erakutsi, erosketak egiterako orduan erabili daitezkeen baliabideak eta hauek dituzten alde on eta txarrak, etab. Azkenean, familiek finantza askatasuna lortzea nahi dugu eta ez dirulaguntzen menpeko bihurtzea.

Azken puntu honi lotuta, ekintzailletza sustatu eta horretarako tresnak emango ditugu, balio erantsiko aberastasun hori Usurbilen geratzea nahi baitugu.

Energia komunitateak sustatu, aholkularitza zerbitzuak eman eta erraztasunak eskainiko ditugu.

Garraio publikoa hobetzeko Foru Aldundiarekin elkarlanean linea berriak eta frekuentziak aztertuko ditugu inguruko herriei lotzeko.

Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Dakizuen bezala, Usurbilera iritsi berria naiz eta eskuzabalik hartu nauten usurbildarrei zor diet, prest nago, ilusioz eta indarrarekin. Etorkizunean usurbildarren seme-alabentzat opa-roa den herri bat prest eduki nahi dut, euskaldun eta abertzalea, zerbitzu publiko gehiagorekin, irisgarritasun hobeagoarekin, haurretatik hasi eta zahartzaroraino inor bakarrik edota baztertuta sentituko ez den herri bat nahi dut. Azken legealdian, Aretxaba-

letan, hirigintza zinegotzia izan naiz eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzarkide izateko aukera ere izan dut. Arlo pribatuan ere, kudeaketa lanetan egon naiz eta orain enpresen administrazio eta zuzendaritza masterra egiten nabil. Beraz, esan dezaket, nire burua erronka honi aurre egiteko prest ikusten dudala.

Odolean daramat gauzak etengabe hobetzeko ezinegon hori, ez naiz erraz konformatzen. Zerbitzuak optimizatu eta hobetu badaitezke, zergatik konformatu?

Zurekin batera aurkeztu den lantaldea nola definituko zenuke?

Nire taldea nire oinarria da, beraiek gabe nire hautagaitzak ez luke zentzurik edukiko. Lantalde berria, indarberritua, prest udaletxeko erronkei aurre egiteko eta lanerako gogoekin, herria hobetzeko gogoekin. Talde anitza da, bai adinagatik eta baita prestakuntza aldetik ere, esparru guztietan aurre egiteko gaitasuna duen taldea sortu dugu.

Labur-labur

Zein izan da ikusi duzun azken telesaila edo pelikula?
‘El Conquistador del Caribe’.

Zein da zure musika talde edo bakarlari gustukoena?
ETS En Tol Sarmiento.

Nora bueltatuko zinateke oporretan?
Pirinioetara, zalantzarik gabe.

Usurbilgo txoko guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

Jatetxeak eta tabernak esango nituzke, baina hortaz aparte, toki konkretu bat esan beharko banu, Andatza mendia.

Udal zerrenda

EAJ-PNV

1. Xabier Otxoa Muñoz.
2. Ivan Iriondo Axpe.
3. Josune Urkola Larrarte.
4. Andoni Atxega San Sebastian.
5. Mirari Azurmendi Sorazu.
6. Agurtzane Egibar Artola.
7. Carlos Perez Fraisoli.
8. Mari Jose Ibargoyen Lizarazu.
9. Alejandra Arrieta Varela.
10. Juan Mari Zubeldia Arrieta.
11. Julian Beraetxe Aranburu.
12. Lourdes Jauregiberri Goenaga.
13. Jose Mari Zubiria Eguzkiza.

Ordezkoak/Suplentes.

Jose Mari Olaizola Orbegozo.



Petra Romero Pozo: “Elkarrekin jardun behar dugu lanean, herritarrentzako eskubideak irabazteko”

Egitasmoei heldu aurretik, egizu azken legealdiaren inguruko balorazioa. Azken lau urteotako udal kudeaketaz zer iritzi duzu?

Petra Romero: Usurbilek ere lau urteotan herritarrok eta erakundeok jasan ditugun arazo larriak bizi izan ditu. Munduko pandemia bat, konfinamendu bat eta ondoriozko ekonomia- eta gizarte-krisia, ondoko Ukrainako gerrak eta Euskadi osoan eta Espainian jendearen eta familien poltsikoak txikiagotzen ari den inflazio handiak larriagotuta.

Sozialistok eman diegu pandemiaren, gerraren eta inflazioaren eragin negatibo horiei irtenbidea, Estatuan beste alderdi progresista batzuekin itunak egin baititugu. Pedro Sánchezen gobernu progresistak, ezkerreko beste alderdi batzuekin batera, babes soziala eman zuen, herritarrenganako erasanak ahalik eta gehien murrizteko: ABEEak kaleratzerik ez egoteko; % 50eko beherapena Gipuzkoako garraio publikoaren prezioetan Mugirekin, eta orain, Etxebizitza Legearekin alokairuei gehieneko muga bat jartzeko laguntzak, besteak beste.

Legegintzaldia hainbeste larriagotu dute osasun-krisialdiek eta humanitarioek, ezen Usurbilgo herritarrentzako garrantzitsuena dena lehenetsi eta ziurtatu baitugu. Gainera, sozialistak, Patxi Suárez zinegotziarekin eta kidearekin, aliatu izan gara eta hertsiki elkarlanean jardun dugu Usurbilgo herritarren bizitzako arazo garrantzitsuenak konpontzen. Udal-politikan esku hartu dugu eta, horretarako, elkarrizketarako irekia dagoen oposizioa egin dugu, eraikitzailea eta arduratsua.

Usurbilen gure alderdiak bizikide-



Petra Romero Pozo, PSE-EEko alkategaia, udal zinegotzia izan zen aurreko legealdian Andoainen.

tza, elkarrizketa eta eskubideak baztzen ditu. Nire lanak norabide horretatik jarraituko du.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira bultzatuko dituzun egitasmo nagusiak?

Jarraituko dugu Usurbilgo herritarren behar garrantzitsuenei arreta emateko helburua betetzen eta, horretarako, politikak egin eta alderdi guztiekin egingo ditugu itunak, bai eta beste erakunde batzuekin ere, zerbitzu publikoen sarea sendotzeko, gure jendearen ongizatearen oinarria baitira. Osakidetzak ezin du egungo egoerarekin jarraitu, ezin du lehen mailako arretaren kolap-

soarekin jarraitu.

Era berean, mugikortasun sozialarekin eta jasangarriarekin dugu konpromisoa, Mugi garraio publikoarekin Gipuzkoan, gure herria Gipuzkoarekin eta Euskadirekin lotzeko dagoen tresnarik onena baita.

Gainera, nire ustez, Usurbilgo kale eta espazio publikoak susperetzeko eta gure kale eta auzoak bizitzeko hobeak izan daitezten, beste herri eta hiri batzuek izan dituzten laguntzak eta dirulaguntzak eskatzeko plan handia sustatu daiteke.

Lehenengo egunetik Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lanean hasteko konpromisoa hartzen dut, irisgarritasun-plan bat eta Udal Gobernuak Usurbilerako negoziatzen jakin ez duen eremuen hobe-kuntza –herrigunetik urrutien dauden eremuetakoa– lortzeko lanean hasteko. Bereziki kezkatzen nau erdigunearen eta Santuenearen arteko tartearen abandonu-egoera. Bereizkeria horrekin amaitu behar dugu.

Ukrainako inbasioak inflazioaren gorakada ekarri du. Elikagaiak, erregaiak, energia... Prezioek gora egin dute modu nabarmenean. Kezka honen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Lehenengo eta behin, Usurbilgo herritarrengan inflazioaren eragin negatiboak neutralizatuko dituzten neurrien aparteko tokiko plan bat sustatu nahi dut eta, haren aurretik, diagnostiko bat. Neurri batzuek Udalak arazo horri aurre egiteko balioko dute, eta beste batzuk Usurbilen EAEko eta Gipuzkoako erakundeekin landu beharrekoak izango dira, esaterako, erkidego energetikoen proiektuak, hezkun-

“Jende trebatua, konprometitua eta ausarta dugu. Zerbitzari publiko handiak ditudala esan dezaket”

tzako gastu arruntetarako (liburuak, ordenagailuak, Interneta...) pertsona eta familientzako aparteko laguntzak eta abar heltzeko. Plan horrek, era berean, tokiko saltokien eta udalerriko enpresa eta ekintzailen aldeko jarduketak jasoko ditu. Elkarrekin jardun behar dugu lanean, herritarrentzako eskubideak irabazteko.

Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Mugimendu feministan esaten denez, alderdi pertsonala politikoa da. Eta nire konpromiso pertsonala, bokazio politikoa eta herritarren aldeko lana beti izan ditut lehentasun. Euskadin bizi izandako une zailenetan eta bortitzenetan ere, nahiago izan nuen bi bizkartzainekin irten eta herritarrentzako politika ona egiten jarraitu, etxean geratu baino.

16 urtez baino gehiagoz izan naiz zinegotzi, Oriako batzarkidea, feminista eta giza eskubideen defendatzailea. Niretzat, tokiko politika egiten jarraitzea eta Usurbilen egitea pribilegio bat da, eta gogotsu eta emozioz ekitekoa.

Zurekin batera aurkeztu den lantaldea nola definituko zenuke?

Jende trebatua, konprometitua eta ausarta. Gainera, Gipuzkoako kide sozialistak ere kontuan hartuta, zerbitzari publiko handiak ditudala esan dezaket.

Udalean arreta emango dugula eta entzun egingo dugula bermatzen dugu sozialistok, eta Usurbilek behar dituen proiektuak erakartzeko beste erakunde batzuekin negoziatzeko konpromisoa ere bermatzen dugu.

Labur-labur

Zein izan da ikusi duzun azken telesaila edo pelikula?

Ikusi dudana azken telesaila ‘La caza’ izan da, eta filma, zineman, ‘Los tres Mosqueteros’-en azken bertsioa.

Zein da zure musika talde edo bakarlari gustukoena?

Une bakoitzeko gogo-aldarteak eragin handia du, baina musika aliatu ona da edozein unetarako. Musika gogoko dut, oro har, eta dantza egitea gustuko dut. Familian asko gozaten dugu musikarekin. Hori jende onaren ezaugarri bat dela esan ohi dute. Ia dena gustatzen zait: Iza, Ed Sheeran, Miley Cyrus edo bestelako talde batzuk ere, Bombay edo Dvicio, besteak beste.

Nora bueltatuko zinateke oporretan?

Aukeratu behar bada, nire herria aukeratuko dut beti, Extremaduran. Quintana de la Serena, Badajoz; han ere familia eta etxea ditut.

Usurbilgo txoko guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

Sarritan joan behar izan dut Harane futbol-zelaira, eta Kalezar auzotik eta herrigunetik paseatzeko aukera ere izan dut askotan, baina esan beharra dut Zubietatik Santuenerako bidea ederra dela, ibaiertz osoa ere bai.

Udal zerrenda

PSE-EE PSOE

1. Petra Romero Pozo.
2. Monica Cacereño Orduñez.
3. Juana Urtizberea Lecuona.
4. Juan Francisco Valbuena Garcia.
5. Jesus Oficialdegui Ruiz.
6. Irma Jauregui Atondo.
7. Miguel Angel Castaño Alberdi.
8. Angel Morales Rojo.
9. Maria Luisa Algote Gomara.
10. E. F. Cordoba Corcostegui.
11. Mercedes Jimeno Badiola.
12. Fabian Nieto Usatorres.
13. M. Esperanza Eguiguren Romero.



Beatriz De Silva Olaran: “Prest dagoen lan-talde bat dut, ilusioz betea eta lanerako gogotsu”

Egitasmoei heldu aurretik, egizu azken legealdiaren inguruko balorazioa. Lau urteotako udal kudeaketaz zer iritzi duzu?

Beatriz De Silva: Azken lau urteotan, Usurbilgo udal kudeaketa hitz bakarrarekin definitu daiteke: desastre bat.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira bultzatuko dituzun egitasmo nagusiak?

Bizi-kalitatea hobetu, kalitatezko enplegua sustatu, kohesio soziala lortu, lurralde indentitatea indartu, garapen jasangarria bultzatu eta ingurune naturala babestu.

Ukrainako inbasioak inflazioaren gorakada ekarri du. Elikagaiak, erregaiak, energia... Prezioek gora egin dute modu nabarmenean. Kezka honen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Udalgintza arloan, hiru ideia ditugu inflazioari aurre egiteko:

Lehena, Higiezinaren Gaineko Zerga (IBIa) murriztea.

Bigarren neurria, bestelako tasak murriztea (zaborrarena, esate baterako).

Hirugarren neurria, aisialdia programak eta kultura sustatzeko programak jarriko ditugu martxan, gazteei zuzenduta egongo direnak bereziki. Udalak asumituko ditu programa horien gastuak, gazteen familientzat kosturik suposatu ez dezan. Era honetan, gure gazteek euren jakintza handitu ahal izango dute.

Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Usurbilgo herriarekin maiteminduta nago eta hori da alkatetzara aurkezteko arrazoi nagusia.



Beatriz De Silva Olaran PP alderdiko alkategaiak 19 urte ditu eta madrildarra da jaiotzez.

Usurbilgo kultura, tradizioak eta gastronomia apartak dira (aipagarrienak, Aginagako angulak eta sagardo ikaragarria, zalantzarik gabe). Horregatik guztiagatik, Usurbilek txoko bat du nire bihotzean. Eta arrazoi hori dela medio, ahalik eta gehien inplikatu nahi dut, Usurbilengatik ilusioa dudalako.

Zurekin batera aurkeztu den lantaldea nola definituko zenuke?

Zorioneko pertsona sentitzen naiz, prest dagoen lan-talde bat dudalako, formazio onekoa, eta garrantzitsuena, ilusioz betea eta lanerako gogotsu. Usurbilen bizi-kalitatea hobetzeko garaian, laguntzeko prest.

Labur-labur

Zein izan da ikusi duzun azken telesaila edo pelikula?

‘Mamma Mía’ izan da ikusi dudana azken pelikula (nire film gustukoena da).

Zein da zure musika talde edo bakarlari gustukoena?

Nire musika talderik gustukoena Estopa da.

Nora bueltatuko zinateke oporretan?

Gipuzkoara beti, nire bihotzari dagokion lurraldea da.

Usurbilgo txoko guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

Salbatore eliza da Usurbilgo txokorik gustukoena niretzat. Usurbil osoaren esentzia eraikin bakarrean ikusi daitekeelako gustatzen zait hainbeste. Edertasunaz gain, bakea, armonia eta goxotasun sentimendua transmititzen ditu (herri osoan sumatu daitekeen sentsazio berbera).

Udal zerrenda

PP

1. Beatriz De Silva Olaran.
2. Roberto Sanz Orozco.
3. Alejandro Fernandez Berjano.
4. Elvira Agüero Fernandez.
5. Maria Lourdes Arranz Vazquez.
6. Alberto Jimenez Morales.
7. David Gazquez Fernandez.
8. Antonia Viñas Picazo.
9. Carlos Martinez Tomas.
10. Yolanda Larren Baños.
11. Isabel Harillo Ortiz.
12. Maria Jesus Acosta Marin.
13. Jose Antonio Monago Terraza.

Zubietan Herri Batzar berria eratzeko deia



Udal eta foru hauteskondeekin batera, Zubietako Herri Batzar berria hautatu beharko da maiatzaren 28an.

Udal eta foru hauteskondeekin batera, Zubietako Herri Batzar berria osatzeko bozketa eguna izango da baita maiatzaren 28a; aurtengoan, berrikuntza nabarmen batekin. Orain arte, beti Alamandegira joan beharra zen bozkatzera. Oraingoan, herrikide guztien irisgarritasuna bermatzeko Kaxkapen kokatuko dute hauteslekua. Maiatzeko azken igande horretan, beraz, goizeko 9:00etan hasi eta arratsaldeko 20:00ak arte frontoi atzealdeko egoitzan bozkatu ahalko da. Kaxkapera joanda, norberak errolatua dagoen udalerriatik aurkeztu diren hautagaien artean, bat edo bi hautatu ahalko ditu. Usurbil aldean bizi direnek, aurrez, maiatzaren 22an, 8:00-14:30 artean Usurbilgo Udaleko idazkaritzan.

Herri Batzarreko bozka, Kaxkapen Administratiboki bi udalerrien artean zatitua segitzen duen Zubietak bozketarako hiru gune izango ditu egun horretan. Kaxkapekoa Herri Batzarreko bozketarako. Udal eta foru hauteskondeetarako, aldiz, Lanbide Eskolara joan beharko dute

Usurbil aldean errolatuak dauden zubietarrek, Donostia aldekoek, Eskola Txikira.

Bost hautagai aurkeztu dira

Herri Batzarra berritzeko hauteskondeetara itzullita, gehigarri hau inprentara bidean zihola, NOAUA!k baieztatu ahal izan duenez, gutxienez bost hautagai aurkeztu dira. Bi Usurbil aldetik, beste hiru Donostia aldetik. Maiatzaren 10era arteko epea zegoen nahi zuten zubietarrek hautagai gisa aurkezteko.

Bi alkate

Gogoan izan, hauteskondeetatik datozen lau urterako, hau da, 2027. urtera arteko Herri Batzar berria osatuko da. Legealdia bitan egon ohi da zatitua eta bi alkate izaten ditu Zubietak. Bi urtez, Usurbil aldeko hautagaietako bat izan ohi da alkatea, beste bi urtez Donostia aldekoa. Beraz, legealdi berriko lehen kargu hartze ekitaldia, herrietako udalbatzak ekainaren 17an osatu eta gerora izango da. Zehazteke dago eguna. Aurreko urteetan, uztailean izan ohi da.

Kargu hartzeak

Hilaren 26ra arte eragile politikoek herritarren bozka eskatzeko aukera izango dute; besteak beste, antola daitezkeen ekitaldiekin batera, Usurbilgo Udalak, ohi bezala, kanpainarako herri erdigunean eta auzoetan jarri dituen panelen bidez.

Gogoan izan, Donostiako Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak ekitaldiak egiteko baimendutako tokien zerrenda kaleratu zuen apirilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Usurbili dagokionez hain zuzen, bosna lokal eta kaleko beste hainbeste gune baimendu dira eragile politikoek kanpainako ekimenetarako. Lokalei dagokienez, Sutegi, Santuenea eta Aginagako udal lokalak, Potxoenea eta Artzabalgo aretoan antolatu ahalko dira ekitaldiok.

Plaza publikoari dagokionean, Kaxkoko, Aginagako, Zubietako eta Santueneako frontoietan edota Askatasuna enparantzian.

Ekainaren 17an osatuko da Usurbilgo udalbatza berria

Hilaren 26ko gauerdia arte eskatu ahalko dute herritarren bozka deialdiotara aurkeztu diren eragile politikoek. Tarte hau igarota, hilaren 27an hausnarketa eguna eta biharamunean, maiatzaren 28an herritarrek udal eta foru hauteskondeotan hitza hartzeko aukera izango dute, 9:00-20:00 artean. Hauteslekuak 20:00etan itxi eta segidan egingo den bozka zenbaketen emaitzetatik berrituko dira Usurbilgo udalbatza eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak datozen lau urteotarako. Emaitzen boto-kontaketa ofiziala ekainak 2-5 artean egingo dela iragarria dago. Hurrengo urratsa; ekainaren 17an hartuko dute kargua udalbatza berria osatuko duten alkate eta zinegotziek.



Aurrera, batera!
Usurbil

